



SAHARAREN ALDEKO JANARI BILKETA ABIAN

Tolosaldea Sahararekin elkarteak abiarazi du; aurten 10.000 kilo jaki biltzea dute helburu. 8

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2009-12-03

VIIURTEA 1.843.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



N. LATABURU

AGUSTIN ADURIZ TOLOSAKO KOMERTZIO TEKNIKARIA

«Tolosak duen merkataritza aukera zabala landu egin beharra dago»

TOLOSA Merkataritza elkarteek komertzio teknikari berria dute; «Tolosan, Tolosarekin eta tolosarrekin» egin nahi du lan Adurizek 10

Manifestaziora deitu dute biharko hautetsi independentistek

TOLOSA «Egoera errepresiboari stop» esan nahi diote; atxikimendu ugari izan ditu, besteak beste, Etxeratena eta gazte mugimenduenak 3

Egitarau oparoa bihartik, Txuletaren Festarekin batera

TOLOSA Ehunka lagun bilduko dira Zerkausian txuleta osagai nagusi duen menua dastatzeko 2

MIKELERRAZKIN
ARANZADIKO KIDEA

«Baliabide metodologikoak eman nahi ditugu»

ANOETA Beste hainbatekin batera liburua kaleratu du 4

Udalak manifestaziora deitu du «igandekoa salatzeko»

LEITZA Hilaren 12an izango da 'Maxurrenea herrintzat. Utzi pakean' lelopean 9

DONOSTIA: Herriari, 13
BILBO - GASTEIZ
Zuluaga Bixifegiak: Gaidakao eta Zornotza
www.eguzkilorejoya.com

EGUZKILORE
Zuluaga



Etorokinaren egunaren harira, antolatutako jardunaldien baitako azoka. E.E

Immigrazioa modu positiboan erakusteko jardunaldiak, gaurtik

Gizartea » Hilaren 19a arte ekitaldi ugari antolatu ditu Ereite elkarteak; zinema, kirola, dantza eta hitzaldia izango dira.

ERREDAKZIOA

Etorokinaren Nazioarteko Eguna izango da abenduaren 18an, eta egun horren harira, laugarren urtez, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Tolosako Ereite elkartetik. Zinemak, kirolak, dantzak eta hitzaldiak osatuko dute egitaraua.

Elkartetik azaldu dutenez, urtean bitan behintzat ekintza desberdinak antolatzen saiatzen dira, maiatzean, kulturazintasunaren egunean eta abenduan etorkina-

ren egunean. Egun hauetarako antolatu dituzten ekitaldiei dagokionez, «immigrazioaren gaia modu positiboan presente dagoela erakutsi» nahi dutela diote. Hala, euren helburua «bertakoak nahiz kanpokoak, guztiek elkarrekin parte hartzea da». Horren adibide bezala, Adiskidetasunaren Txapelketa jartzen dute.

Abenduaren 18an, hau da, Etorokinaren Egunean hitzaldia izango da. Egokia eta interesgarria izango dela diote, «bizi dugun unearekin bat egiten duelako». Jardunaldien azken egunean, hilaren 19an, Adiskidetasunaren Txapelketaren finalak jokatuko dituzte, eta ondoren, ekitaldietan parte hartu duten lagun guztiak bilduko dira bazkarian.

» EGITARAUA

Abenduak 3, gaur

■ **Zine Foruma.** *Rojo Oriental* filma emango dute, Leidor aretoan, 19:15ean eta 21:45ean.

Abenduak 4, bihar

■ **Sabel dantza tailerra.** Ereite elkartearen lokalean (Tolosako San Esteban auzoa, 20), 19:00etan.

Abenduak 12, larunbata

■ **Adiskidetasunaren Txapelketa.** Final-laurdenak jokatuko dituzte, 16:00etatik aurrera, Ibarra Bela-bieta kiroldegian.

■ **Zinema.** *Sin nombre* filma izango da ikusgai, eta ondoren, *On the line* film laburra emango dute Tolosako Leidor aretoan, 22:30etik aurrera.

Abenduak 13, igandea

■ **Adiskidetasunaren Txapelketa.** Finalerdiak jokatuko dituzte, 17:00etatik aurrera, Tolosako Hirukide ikastetxean.

■ **Zinema.** *Sin nombre* filma izango da ikusgai, eta ondoren, *On the line* film laburra emango dute Tolosako Leidor aretoan, 20:30etik aurrera.

Abenduak 18, ostirala

■ **Hitzaldia.** *Kulturartekotasuna krisi garaian.* SOS Arrazakeria elkarteko Mikel Mazkianaren eskutik, 19:30ean, Tolosako Kultur Etxean.

Abenduak 19, larunbata

■ **Adiskidetasunaren Txapelketa.** Hirugarren eta laugarren postuak eta finala jokatuko dute. 11:00etatik aurrera Tolosako Uzturpe pilotalekuan.



Ehunka lagun bilduko dira bihartik aurrera Zerkausion, txuleta osagai nagusia duen menuaz dastatzeko. A. IMAZ

Txuleta-aren Festarekin, ekitaldiz beteriko asteburu luzea hasiko da bihartik

Gastronomia » Datorren asteartera bitarte Zerkausion nahiz herriko hainbat jatetxetan menu berezia eskainiko dute.

ERREDAKZIOA

Beste behin ere jateke erraldoi bilakaturik ikusiko dugu asteburu honetan Zerkausia, izan ere, Txuleta-aren Festak hartuko du bihartik datorren asteartera bitarte. Eki-men honen inguruan, gainera, ekitaldiz beteriko egitarau zabalaz gozatzeko aukera izango da herritan.

Tolosako Casa Julianeko Matias Gorrotxategi, Casa Nicolaseko Nicolas Ruiz, Burruntzi erretegi Juanjo Pascual eta Orue erretegi-kokari Javi Hualde sukaldariek prestatuko dituzte txuleta. Hauek Goya okelak, Alejandro Goya eta Dastatzen-ek jarriak izango dira. Txuleta-arekin batera, erretegi-ko menua dastatuko dute bertaratzen direnek: urdaiazpikoa, Tuterako kukuluak, Lodosako esparragoak eta piperrak, Idiazabal gazta, zigarrak, oilak eta xaxuak. Hau guzti ardoz lagunduta.

Beste urteetan bezala, mahai zerbitzua Divinus Cateringek egingo du, baina aurtengoa, lehenengo aldiz, TAKEkoen laguntza izango dute.

Txartelak agortzeaz

Zerkausiaz gain, ondorengo jate-keetan menu berdina jateko aukera izango da prezio berdinean, hau da, 40 euroren truke: Astelena (943 65 09 96), Beti Alai (943 67 19 20), Botarri (943 65 49 21), Bide Bide (943 57 75 73) Hernialde (943 67 56 54) eta Usabal sagardotegia (943 67 43 16). Zerkausiarako erreserba egiteko, Tolosaldea Tour-erara (943 69 74 13) deituz egin ahalko da. Hori bai, azaldu dutenaren

arabera, biharko afarirako baino ez dira sarreak geratzen. Dena den, igandean bazkaltzeko ere aukera badago oraindik, Jai-Alive klubak gorde baititu sarrea batzuk. Hala, erreserba euren bidez, info@jaialive.com helbidean edota 943 21 21 04 telefono zenbakian eginda, prezio berean zesta-punta partidaz ere gozatu ahalko da igandean.

Egitarau zabalak

Txuleta-aren Festaren inguruan asteburu luze honetan hainbat ekitaldi izango dira. Esaterako, Lur Kolektiboak antolatuta San Franzisko pasealekuan artisautza azoka egongo da, etzi hasi eta datorren asteartera arte. 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era izango dituzte zabalik postuak. Guztira, artisautza 14 postu izango dira (larua, egurra, xaboiak, pilotak, ehungintza, beira, bitxiak, makramea, kosmetika naturala eta musika instrumentuak) eta elikagai artisautza 5 postu (Idiazabal eta Erroñkari gazta, hestebeteak, pastak eta pateak, besteen artean).

Pilota partidak Beotibarren

Pilotak pisu handia izango du. Batetik, Bigarren mailako Lau Terdiko finala jokatuko dute, etzi, larunbata 16:45ean hasiko den jaialdian, Beotibar pilotalekuan. Guztira hiru partidak osatuko dute jaialdia, eta garrantzitsuen Argote eta Urrutikoetxea nor baino nor ariko diren finala izango da.

Hurrengo egunean, hau da, igandean, zesta-punta norgehiagoka izango da ikusgai. Jai-Alive klubak antolatuta, 17:00etatik aurrera, zesta-punta txapelketa izango da, klubeko puntista gazteen erakustaldiarekin. 18:00etan, berriaz, aurrez aurre jarriko dira Jai-Aliveko pilotari onenari lau: Egiuren II-Konpa eta Foronda-Jon Arriaga izango dira bikoteak. Irabazten duenak, sari gisara, txu-

leta zinta bat eskuratuko du.

Eta astelehenean, hilaren 7an, BBK Txapelketako pilota partida izango da Beotibarren, 16:30ean hasita. Olaizola I eta Beginoren arteko norgehiagoka ikusi ahalko da.

Eusko Labeldun Txahal erre

Bestalde otorduez gain, igandean pintxoak banatuko dituzte. Goizeko lehenengo ordutik, 205 kilo inguruko eusko labeldun txahalaburuntzian erretzen hasiko dira. 12 ordu inguru erretzen eduki ondoren, 19:00ak inguruan, Triangulon txahal erre probatzeko aukera izango da. 1.200 pintxo inguru banatuko dituzte sagardo trago batekin 1,5 euroren truke. Tolosa CFko txirrindulariak ariko dira zerbitzatzeko eta bertan biltzen den dirua taldearentzat izango da.

Ekimen hau Eusko Labela duen euskal okela saltzeko baimena duen J.L. Muñagorri, Martin eta Garikano harategi tolosarren eskutik egingo da. Pintxo ez gain, gerturatzen direnek Euskal Okelaren inguruko informazioa eta haurrentzako promozio materiala ere jasoko dute. Ekintza honen helburua «Eusko Labela duen Euskal Okela haragia promozionatzea da, produktua lehiakortasuna hobetuz, eta nekazarien, harakinen eta enpresen errentagarritasuna handituz». Horrez gain, produktua balio nabarmendu nahi dutela ere adierazi dute antolatzaileek.

Kabi Alai elkartearen ere bai

Sortzez Garbiaren eguneko Musika Kaperaren ekitaldia ere izango da, hilaren 8an 12:00etan. Kabi Alai elkarteak bestalde, 75 urterena betetzen duela eta, Txuleta-aren Festako menua eskainiko du elkartearen. Halaber, ohiko larunbateroko azoka ere gehitu behar zaio egitarauri, baina hau, Zerkausion egun ordez, Triangulon egingo dute.

Tolosako Udala

IRAGARKIA

Tolosa Oriberru Batzarrak 2008ko azaroaren 16an egindako bilan hurrengo plana hasiera batez, onestea erabaki zuen.

Tolosako alde Zaharra birgaitzeko Plan Berezia, Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 97. artikuluz 95.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, espedientea HIRU HILABETEZ jandaurrean jarrita egongo da. Espedientea jendaurrean jartzeko arrazoia hau da: nahi duenak dokumentua aztertu eta alegazioak egiteko aukera ematea.

Iragarri hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berman, Diario Vasco eta Tolosaldeko Hitza argitaratuko da. Aurrean aipatu den epea argitelpen honetako azken iragarpena kaleratu eta biharamunetik hasiko da kontatzen.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espedientea Tolosaldeko Hirigintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B. eraikinean. Alegazio edo erretzesak orain horretan bertan dagoen Santera Erregistro Onkorraren burkatzeko dira alkaterehendakariari zuzenduta.

Tolosa, 2009ko azaroaren 30ean,
BEHIN BEHINEKO ALKATEA,
Jokin Azkue Arrastoa.

Laburrak

Elurra tabernak bihar, bere urteurrena ospatuko du

GIZARTEA ● Elurra tabernak bere 25. urtemuga betetzen du aurten. Hau bezero eta lagunekin ospatzeko asmoz, ekitaldi berezi bat antolatuta du biharko. 19:30etik 21:30era izango da jaia. Garazi Egiguren eta Garazi Esnaola abeslarien partehartzea izango da bertan.

Pello Odriozolaren aldeko elkarretaratzea, gaur

POLITIKA ● Hilabeteko lehen ostegunero bezala, gaur elkarretaratzea deitu dute Lizardi elkarteok Pello Odriozola aske uztea eskatzeko. Elkarretaratzea 19:30ean izango da Plaza Zaharrean.

Udal txistulari bandaren emanaldia, hilaren 8an

KULTURA ● Udal txistulari bandak Inmakulada eguneko kontzertu berezia eskaini du datorren asteartean, hau da hilaren 8an. Udaltxeko arkupean izango da emanaldia 13:15ean. Igor Agirre eta Xabier Zelaia tronpetajotzaileak ere bertan izango dira txistulariei laguntzeko. Beti bezala, Iñaki Letamendiaren zuzendaritzapean ariko dira.

Ipuin kontalariaren saioa izango da gaur arratsaldean

KULTURA ● Hilabeteko bezala, Errota Haur Liburutegiak antolatuta, ipuin txokoa izango da gaur arratsaldean. 18:00etatik aurrera, ipuin kontalari batek izugarriko abenturak eta istorioak kontatuko dizkie etxeko txikienei.

Erramun Oiarzabali laguntzeko kutxa

GIZARTEA ● Erramun Oiarzabali musikariari laguntzeko asmoz Txaranga eguna antolatuta dute. Hau hilaren 20an izango da. Ekitaldien baitan, herri bazkaria izango da Zerkausan. Bertara joateko aldeuz aurretik eskuratu ahal izango dira txartelak Kabi Alai elkartearen. Bestetik, bi kontu korronte ireki dituzte laguntzak jasotzeko: 21010022040127112951 (Kutxa) eta 30350026260261119578 (Euskadiko Kutxa).

Eskualdeko hautetsi independentistek manifestaziora deitu dute biharko

Politika ● «Egoera errepresiboari stop» esan nahi diote; Etxerategi eta gazte mugimenduek ere bat egin dute deialdiarekin.

ERREDAKZIOA

«Euskal Herriaren aurkako jazarpenak eta Tolosaldekoak» salatze asmoz Tolosaldeko hautetsi independentistek bat egin dute, eta herritarrei, bihar Tolosan egingo den manifestaziora joateko deia zabaldu diete. Hau arratsaldeko 19:30ean izango da, Triangulo plaza-rik abiatuta. Deialdi honekin bat egiten dute, besteak beste, Etxerategi eta Tolosaldeko Gazte Mugimenduak.

Azken hilabeteetan bizi den egoera hizpide hartuta, «PSOEk diseinatu eta polizia muturreraino eramaten duten errepresioak, azken hilabete luze hauetan gure herri eta auzoak astindu» dituela salatu dute ezker abertzaleko ordezkariak. Euskal Herriak «bere etorkizunari begira, marko demokratiko bat erdietsi beharra» duela iritzita, «horretan sinisten» dutela eta «horren alde jarriko dutela indarra» nabarmendu dute hautetsi independentistek. Udaletxean nahiz udaletxetik kanpo, egunero koan, herrigintzan jarraituko dutela argi dute eta «herri honen etorkizuna nahiz borondatea isilarazi nahi duten horiei aurre egiten».

«Errepresio politikoaren ondorioetako batzuk» aipatu zituzten herenegun egindako agerraldian. Besteak beste, Remi Aiestaran alkateordearen heriotza, Konsuelo Agirrebarrena Lizartzako hautetsiaren «bahiketa», Maite Aranalde agurto nahi zutenen lagunak kolpatuak izatea, gazte militante eta langileen atxiloketa, kontrol eta identifikazioak eta euskal pre-soen «argazki ehiza» abian jartzea. Egoera «antidemokratiko» honetan, hautetsiek Udaletan lana egitea ere maiz oztopatua izan dela salatu dute. Horren adibidetzat jarri zuten «Lizartzak bizi duen apartheid egoera». Halaber, ezker



Herenegun agerraldia egin zuten eskualdeko herri ezberdinetako hautetsi independentistek. E. EZEIZA

abertzalekoen ustetan, «errepresioasakontze» horren bidean, «Jokin Bildarratz bezalako politikariek lagundu egiten dute», eta «herritarren aurkako errepresioa honek ez du eteniko».

Egungo egoera gainditu ahal izateko, eta Euskal Herriko marko demokratikorantz abiatzeko, sektore guztien arteko bilketa ezinbestekotzat jotzen dute hautetsi independentistek. Hori dela eta, «guztiok prozesu demokratikoa indartu eta kalera agertzeko beharraz ohartarazten diete eskualdeko herritarrei».

Gazte mugimenduek ere bat egiten du deialdiarekin

«Inoiz baino gehiago, batera ekiteko unea delako», Tolosaldeko gazte mugimendu, eragile, asanblada eta elkarte ezberdinek bat egiten dute biharko manifestaziorako deialdiarekin. «Eskualde honen bizi duen errepresio egoera basartiarekin nahikoa dela esateko, nazkaturik gaituztela eta gazteriaren

aurka errepresioa antzua dela argi eta garbi uzteko» egingo dute bihar protesta. Tolosaldeko gazte mugimenduetako kideek deialdi berezia egiten diote eskualdeko gazteriari, «bihar beraiekin bat egin eta espetxeratuei berotasuna adierazteko, batera ezingo gaituztelako gelditu eta batera garaitezinak izango garelako».

Pasa den azaroaren 24ko gaua «ahazte zintza» jotzen dute eskualdeko gazte askok. Baina horrela izan arren, ez zaiela zaharra eta arrotza egiten agertzen dute. Argi dute ere, azken «polizia operazio honekin gazte mugimendu osoaren aurka» jo dutela. Izan ere, «gazte eta inkonformista izatea, garesti ordaintzen da herri honetan», gaineratzen dute.

«Eraso» hauek, «ikaragatik» egiten dituztela deritzote gazteek, hau da, beldurra sortzen dielako «sistemaren kontra aktibatzen hasia den gazteriak, eta hauen indarrak batuz sortu ditzaketen dinamikalak».

» ZENBAIT DATU

Abenduak 4, bihar

■ **Manifestazioa.** Tolosako Triangulo plaza-rik abiatuta, 19:30ean egingo da, herriko kaleetatik barrera.

Atxikimenduak

■ **Eskualdeko hautetsi independentistak.**

■ **Etxerat.**

■ **Ikaztegietakoz gazteak.**

■ **Alegiko gaztetxea.**

■ **Amezketako gazte taldea.**

■ **Ospelako gazte lokala.**

■ **Ibarrako gazte asanblada.**

■ **Ikasle abertzaleak.**

■ **Gazte independentistak.**

■ **Sanblaspioko gazte asanblada.**

■ **Inpernu gaztetxea.**

■ **Lizartzako gaztetxea.**

■ **Laskoraingo gazte independentistak.**

■ **Anoetako gazte asanblada.**

■ **Villabonako Onddo gazte asanblada.**



San Bartolome, 2 Euskara zerbitzua
943 671 138 943 673 827

www.ibarrakoudala.net

Ibarrako Udala euskaraz blai !

E Elkarrizketa**MIKEL ERRAZKIN** › Aranzadiko kidea

«Baliabide metodologikoak eman nahi ditugu»

Anoeta » Mikel Errazkinek eta Juantxo Agirrek, 17 aditurekin batera, '1936ko Gerra Euskal Herrian: Historia eta Memoria' liburua kaleratu dute Durangoko Azokarako.



E. MAIZ

ENERITZ MAIZ

Mikel Errazkin anoetarra eta Jauntxo Agirre tolosarra proiektu honen koordinatzaileak izan dira. *1936ko Gerra Euskal Herrian: Historia eta Memoria* liburua kaleratu dute Durangoko Azokarako. Gu, Mikel Errazkinekin elkartu gara liburuaren berri izateko.

19 lagunen artean osatu duzue liburua. Nolatan?

Liburua egiteko prozesua luzea izan da, 2006an hasi zen. Udako Euskal Unibertsitatearen eta Aranzadiren artean, euskal arkeologiaren inguruan ikastaro telematikoa praktikoa izan zen. Tartean askoz ere sakonagoa zen eta antropologia fisikoa eta baita, gerra zibilean fusilatutako gorpuak deshobiratze modulu bat zegoen. 2007. urtean ere, gerra zibilaren inguruko ikastaro telematikoa praktikoa egin zen. Bertan disziplina ezberdineko aditu ezberdinak batu ziren eta sail ezberdinetakoak, hau da, Euskal Herriko Unibertsitate ezberdinetakoak, ikerketa zentru ezberdinetakoak ziren eta batez ere garrantzia tematika ezberdinei eman zitzaizkien. Azken batean, ordura bitarte, Gerra Zibilaz hitz egiterakoan historiari hitz egiten zen eta ez zen antropologia fisiko edo soziokulturalaz hitz egiten ezta memoriaren inguruan gogoetak edota agian zuzenbide politikaz ere. Euskal Herrian askotan hitz egiten da biktimen eskubideez baina sarri askotan zuzenbide penalak zer dioen jakin gabe. Jende askok deitu izan du bere aitona edo amonaren inguruko informazioa bildu nahian eta eskaria «nik informazio hori

bidu nahi dut» zen eta transmisio etendura bat eman baldin bada, familiar tekoei baliabide metodologiko batzuk eman nahi dizkiegu beraien, familiar tekoeen memoria pixka bat berrosatu dezaten.

Eta ikastaro horien ostean, liburua etorri da.

Bai, euskarazko material berri dezentre genuela eta saiakera egin zen liburu batean biltzeko. Liburu hau ez zen posible izango Udako Euskal Unibertsitatea eta Aranzadiren arteko elkarlanik gabe.

Liburua erosten duenak, zer aurkituko du?

Nik uste dut Gerra Zibilari dagokionean aldaketa kuantitatibo eta kualitatibo bat eman beharra dagoela eta akademia mundua ere arlo horretan dagoela. Orain dela gutxi arte bilakera historikoan zentratu gara baina jada tokian tokiko ikerketak bultzatu behar dira. Biolentzia politikoaren funtsak hartuta, eta batez ere gizabanakoak ikertu behar dira. Jada ez digu balio hizki larri eta abstratuetan aritzeak. Kasu konkretuak behar ditugu eta Aranzadi bera ere Tolosako Gerra Zibilaren inguruko ikerketa burutzen ari da. Egia da fusilatuen izatera hori dela dramatikoa, baina gerra zibileko biktimak fusilatutako baino gehiago dira. Eta gainera beti gizonetzkoa eta fusilatua lotzen ditugu baina emakumeek ere izugarriko sufrimen-

duak izan zituzten. Azken batean liburu honetan, Euskal Herriko Ikerketa zentru eta Unibertsitate ezberdinetakoak eta iparraldeko eta hegoaldeko ikerlari ezberdinak biltzen saiatu gara. Bestetik arlo ezberdinetan gauzatu dugu.

Zein dira liburuan agertzen diren arlo ezberdinak?

Lehena, historia litzateke eta bertan, II. Errepublikatik hasi eta gerra zibilaren bilakaera, ondorioak eta amaieran frankismoa. Ondoren, memoriaren inguruan batez ere, gizarte eta kultur antropologiaren ikuspuntutik gauzatzen da. Jarraian, zuzenbide ikuspuntutik eta ez zuzenbide ikuspuntutik bakarrik baita instituzioek biktimen eskubideekin dituzten betebeharrak dago eta liburuaren muin garrantzitsuenetako bat hori dela uste dut. Biktimen ondorengoen zein aldarrikapen egiten dituzten eresartu dugu. Etabukatzeko ikerketarako metodologia proposamenak liratekeenak daude eta DVD bat du aplikazio informatikoa batekin. Aplikazio informatikoa honen zuzenbide ikertzen ari den faktore horien informazioa kudeatzeko balioko du.

Zein dira helburuak?

Nazioarteko zuzenbide penalaren arabera biktimen eskubideak hiru dira: egia eraguzteko, ordain edo erreparazio moralerako eskubidea eta justizia eskubidea dira.

Ezker hormako lehen mailako nesken pilota partidak Anoetan

Kirolak » Larunbatean, hilak 5, 11:00etatik aurrera Su-Berriko neskek Intxaurrendokoen aurka lehiatuko dira.

ERREDAKZIOA

Ezker hormako Gipuzkoako Elkarteen arteko Txapelketan, neska jubenil eta nagusien arteko partidak jokatu dira. Kutxa Sarien baitan ari dira jokatzeko eta jai egu-

nak izanik, ohi baino partida gutxiago jokatu dira. Bigarren mailako eta finalerdiak jokatzeko ari diren jubenilek atsedena izango dute asteburu honetan. Beraz, 1. mailako eta sailkatu gabeko jubenilen partidak izango dira jokatu direnak.

Larunbatean, hilak 5, 11:00etatik aurrera, Anoetako Su-Berriko neskek, Intxaurrendokoen aurka ari diren jubenil eta nagusien arteko partidak jokatu dira. Kutxa Sarien baitan ari dira jokatzeko eta jai egu-

Airetiko oihalen eta akrobazien ikastaroak

ERREDAKZIOA

Adunako Asvinenea eskolak, bi ikastaro prestatu ditu. Bat helduei zuzendua dagoen airetiko oihalen ikastaroa da eta bestea akrobaziarena da eta hau, 5 eta 14 urte arteko haurrei zuzendua dago eta Asvinenean bertan izango dira.

Helduen ikastaroa, abenduaren 28, 29 eta 30ean eta urtarrilaren 4, 5 eta 6an izango da. Maider Yabar

izango da irakaslea eta 18:30etik 20:30era izango da. Hiru egunetako saioak 50 euroko kostua du eta 60 egunetakoak, 80 eurokoa.

urrientzat den akrobazia ikastaroa abenduaren 28, 29 eta 30ean izango da 11:00etatik 13:00etara eta 50 euro ordaindu beharko dira. Informazio gehiago 667223236 telefonoan edota maidertxo@hotmail.com helbidean.

Laburrak

Ohiko osoko bilkura egingo dute 19:30ean Anoetan

ANOETA » Gaur, ohiko osoko bilkura izango da 19:30ean. Bertan, 2009ko urriaren 1ean eginiko osoko bilkuraren akta onartzeko proposamena, alkatetzaren ebazpen berri ematea, 387 zenbakitiko 477 zenbakie dagokienak, biak barne, *Egunkaria*-ko Anoetako langile ohiek prestatutako mozioa eta gazte mugimenduaren kontrako espainiar Estatuaren eraso erpresiboaren aurrean mozioa eta galde-erreguetarako aukera izango da.

Titirijaren baitan bi emanaldi izango dira

TOLOSA » 18:00etan Gorosabel auzitorian izango da Theatre des deux mains Quebeketik etorritako taldeak *Juanito y el pobre diablo* emanaldia eskainiko du. Familiari zuzendua izango da eta 50 minutuko saioa egingo dute. 20:30ean berriz Topic eraikin berrian, Shakespeareren *Women The portugaldar taldeak, La tempestad en un vaso de agua* emanaldia aurkeztuko du. Hau ere, familiei zuzendutako izango da eta 55 minutuko iraupena izango du.

**sarrerak**HITZAK **bi sarrera** du**LAGUN ARO GBC XACOBEO**
saskibaloitartidarako

Abenduak 6 • Igandea • 19:00etan Donostiako Ilunben

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



Oraindik ere aukera zabala dago Oargiren azokan. I. TERRADILLOS

Aukera zabala Oargi elkartearen merkatu txikian

Tolosa » Hilaren 8ra arte, asteartea, izango da zabalik Oargiren egoitzan; jende ugari ari da bertatik igarotzen.

ERREDAKZIOA

Oargi mendi elkarte bere Mendi Hamabostaldian murgilduta dago. Datorren astetik aurrera proiektzioak izango dira nagusi. Baina, aste honetan protagonista Mendi materialaren Azoka izaten ari da. Urtero-urtero ehunka lagun igarotzen dira elkarteak duen egoitzatik; bertan mendirako baliagarri diren hamaika produktu topa daitezke, esaterako, arropa, zapatak, eskiatzeko gailuak, eskalatzeko gailuak,... Guztia prezio egoki batean eta egoera onean; bigarren eskuko materiala da batik bat baina zenbait kirol dendek utzitako material berria ere topa daiteke.

Bertara joateko interesa dutenek horretarako aukera izango dute ostiralera bitarte 18:00etatik 21:00etara eta asteburuetan eta jai egunetan 10:00etatik 13:00etara bitarte eta 16:00etatik 21:00etara.

Datorren astean, proiektzio ugari

Antxon Zabala, Christian Ravier, Alex Txicon eta Manu Cordoba dira Oargiko Mendi Hamabostalditik igaroko diren izen ezagunak. Gaia, berriz, eskalatzeko, Piriñoak, Makaluko goiera,... izango dira.

Mendia gustuko dutenentzat urtero bezala galdu ezin daitekeen zita da Oargikoa.

» EGITARAUA

Proiektzioak

■ **Abenduak 9.** 19:00etan Oargin Antxon Zabalaren eskalatzeari buruzko proiektzioa.

■ **Abenduak 11.** 19:00etan Oargin Christian Ravieren *Mi manera de ver el Pirineo y escaladas por el mundo* lana.

■ **Abenduak 14.** 19:00etan Oargin Felix Baltistan Fundazioaren *Elkartasunean Mendian Bide* ikusentzunezkoak.

■ **Abenduak 15.** 19:00etan Oargin Alex Txiconen *Pilar Oeste del Makalu* lana.

■ **Abenduak 17.** 19:00etan Oargin Manu Cordobaren *Libre y Atado* ren proiektzioa.

Ibarretxeren hitzaldiak itxiko ditu Uzturreren jardunaldiak, gaur Kasinoan

Tolosa » 'Konpromiso politikoa: aukera bat, behar bat, betebeharrak' izenburuan ariko da hizketan, 19:30ean.

ERREDAKZIOA

Uzturre Fundazioak pasa den azaroaren 12an abiarazi zuen hitzaldi sortak gaur izango du amaiera, Juan Jose Ibarretxe lehendakari ohiaren eskutik. *Konpromiso politikoa: aukera bat, behar bat, betebeharrak* izenburupean hitzaldia eskainiko du Ibarretxek, Tolosako Kasinoan, 19:30etik aurrera.

Dudarik gabe, interesa piztuko du gaurko hitzaldiak, azken aste honetan berriz ere guztion ahotan izan baita Juan Jose Ibarretxe, Noticias taldeko hainbat egunkaritan argitaraturiko irizki artikuluak dela eta. Bere konpromiso politikoz ariko da bera.

Abenduaren 13an, ekitaldia

Esan bezala, gaurko hitzaldiak *Abertzaletasuna zure eginez bizi* zikloa itxiko du. Horretarako, Ibarretxeren hitzaldia izango da. Baina jai giroan ere emango diote amaiera jardunaldiak. Hau, abenduaren 13an, igandean, izango da. Goizean zehar Zerkasua bilduko dira eta euskal kantuak, bazkaria,... egingo dituzte bertan. Ekitaldi politikoa parte hartuko dute Iñigo Urkulluk, EAJren presidentek, eta Joseba Egibarrek, GB-Bren presidentek.

Ekitaldi honetan Txato Agirre, Mikel Atxaga, Begoña Rebuelta eta Gorka Agirre jeltzaleak gogoan izango dituzte, omenalditxo baten bitartez.

Tolosatik pasa direnak

Juan Jose Ibarretxerena laugarren hitzaldia da. Aurretik, Xabier Arzallus, Markel Olano eta Joseba Egibar jeltzaleak ere izan dira Tolosan, abertzaletasunaren hainbat alor jorrazteko. Bereziki interesa piztu zuen Arzalluek azaroaren 12an eman zuen hitzaldia, Kultur Etxea txiki geratu baitzen bertako jende guztia hartzeko.

Gutunak

Bertako jaiak argazkitarako

Aurreko egun euritsu eta petralbatean, kafetxo bat hartzen ari nintzela, Tolosaldeko abenduko gida hartu nuen esku hartean. Begiratu bat ematen ari nintzela ia kontrako ezterrira joan zitzaidan kafea artikuluan baten izenburua irakurtzean: Larunbateko azokak indartzeko txuletak denontzat.

Amorru biziz irakurri nuen artikulu eta amorru horren ondorio idatzi hau.

Udalaren gezurrak sinestarazi nahi dizkigute guztioi. Baina jakin dezazuela horrelako ekintzekin bertako baserriak ondatzen hari zaretela eta erantzunkizuna duzuela honetan. Zuen Txuleta Festa horri tarte emateko, larunbatero, urte guztian gure baserrietan esfortzu eta mimo askoz ekoizten ditugun produktuen lekuan jartzen dituzue auskalo nondik ekarritako txuletak. Gainera lotsa gutxiarekin diozue zainzuriak, gazta xaxuak,... bertakoak direla, Txuleta Festa izena jarri eta berau kanpotik ekarritakoa, zuek bai azkarrak. Guri azokako lekua kendu eta karpabatzen azpira ateratzen gaitezue, gure salmentak nabarmen jaitsiz eta astero erosketak azokan egiten dituen herritarrak nahastu eta mareatuz. Ez hori bakarrik, turismoa sustatzeko aitzakian, gure produktuen lekua kanpokoek hartzen dute bertako baserriarrok saldu ezinik gabiltzan bitartean.

Ezin aipatu gabe utzi Tolosako Udaleko arduradunari egiten dioten elkarrizketan, artikuluak dakarren perlatako bat: Txuleta Festa gure beste berezitasun bat produktuen jatorriarena da. Ber-

tako produktuekin osatutako menua eskaini ohi dute, nahiz eta «bertakoak» esaterakoan, lurralde guztiak hartzen dituen kontuan: Badakigu txuletak ez direla hemengoak, abereak, esan nahi dut, baina Tolosako harakinek saltzen dituztenak dira.

Honekin zer ulertu behar du gu Tolosako harakinek kanpoko haragia saltzen dutela zuen ustez?

Ez al litzateke ideia hobeia izango bertako haragiarekin jaki goxoa prestatu eta bertako kontsumoa bultzatzea?

Ze klasetako politika egiten ari zarete kanpoko haragiari gurean lekua emanez?

Iraingarria iruditzen zait larunbateko azokak indartzeko Txuleta Festa beharra dagoela irakurtzea eta gezurra hitzetik hortzera erabiltzea. Hona hemen beste perla bat:

Lau erretegiatoko sukaldariak oso argi izan dute, urte hauetan, astero azoka bultzatzeko, Herriko sukaldariak ezinbestekoak direla. Horregatik, Txuleta Festa parte hartzeaz gain, herriko jate-txeetako sukaldariak txandatu egin dira larunbatero euren jaki goxoenak azoka bertako produktuek erosiz eta han bertan prestatu eta jendearen artean banatu.

Larunbatero azoka indartu nahian eta herritarrei kalitatea eskaintzen diegunak gu gara, baserriarrok.

Hau ez da herriak behar duena, ez horixe, ezta zuen herritarrak garen baserriarrok behar duguna ere. Bertako azoka indartzeko behar dugu udalaren dirua ez Txuleta Festa egiteko.

Begoña Aristi Ori. Tolosako baserriarra.

Laburrak

Euskararen Egunerako ekitaldiak antolatu dituzte

ALEGIA » Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta gaur 18:00etan Kultur Etxean 3 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzenduriko ipuin konteketa izango da. Hainbat herritar ariko dira kontu kontari.

Nafarroaren Eguna ere ospatuko dute gaur

ALEGIA » Gaur Euskararen Eguna ezezik, Nafarroaren Eguna ere bada. Alegian hori gogoan izango dute eta 19:00etan Nafarroako eresarkia erantzuteko aukera izango da plazan, herriko txistulariekin.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



* Euskal kulturaren erabilera
gurtien ohitura izatea helburu
duen bide orria.*

* La hoja de ruta que quiere convertir
en costumbre cotidiana el uso de la
cultura vasca.*

* La feuille de route qui veut changer
en coutume quotidienne l'usage de la
culture basque.*

m	z	w	f	j	s	a	s	h	a	r	i	t	z	a
p	e	h	i	t	z	e	g	i	o	n	b	n	h	r
s	a	i	f	o	d	a	u	f	z	h	d	s	i	r
c	i	z	n	e	s	x	z	a	p	e	a	o	a	e
a	j	k	n	g	a	k	t	j	a	r	x	j	n	f
i	l	z	s	u	m	a	i	c	b	r	f	t	k	i
ñ	a	n	a	n	j	a	o	z	a	i	a	e	a	z
a	i	t	j	e	u	s	k	a	r	a	z	j	u	a
k	a	z	w	r	f	a	e	r	x	a	e	i	a	b
i	s	a	t	o	m	a	d	u	p	b	u	r	o	a
k	z	p	k	b	i	p	z	t	a	j	k	z	p	l
a	z	a	i	n	d	u	t	l	e	r	o	t	a	d
d	h	x	p	r	a	x	a	u	z	a	w	a	i	u
a	z	a	g	i	p	u	z	k	o	a	s	b	n	o
t	z	w	b	f	ñ	a	f	i	x	p	z	b	r	a

egunero guztiok euskaraz bizi.

Langage

Mundos

Ametsak

Bideak

Worlds

Movements

Hizkuntzak

Hitzek

Espazioak

Geografiak

Giza

Erabilgarritasunak

Bizia

Indarra

Egunoro. Munduro.

mundo
euskaraz

ABENDUAK 3 EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA
3 DE DICIEMBRE DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA

HADE



Abenduaren 10etik urtarrilaren 31 bitarte jaki desberdinak eta eskolarako materiala bilduko dute. R. CALVO

Aurten ere 10.000 kilo jaki bildu nahi ditu Tolosaldea Sahararekin elkarrekin

Tolosa » Jaki desberdinak biltzearekin batera, Meheriz herrian eraikitzen ari diren eskola hornitzeko materiala jaso nahi dute.

REBEKA CALVO

Sahararen Aldeko Euskal Karabana antolatuta du sei garrenegoz Tolosaldea Sahararekin Sahara Bizitza elkarrekin Aljeriako Tindouf hiririaren ondoan dauden saharar errefuxiatuen kanpalekuetara produktu desberdinak bidali ahal izateko. Abenduaren 10etik urtarrilaren 31 bitarte jasoko dituzte produktuak.

Aurreko urteetan bezala aurtengoan ere janari biltzeta egingo dute eta hauek dira eskualdean jaso nahi dituzten produktuak: azukrea, pasta, lekaleak, hegaltza eta sardinak oliotan, arrosa eta konpresak.

10.000 kilo bildu nahi dituzte, beti bezala, «hauxe da aurtengoan ere gure erronka», argitu zuen

zentzu honetan elkarteko Ion Diazek. Iaz, 9.000 kilo jasotzea lortu zuten eta aurten «krisia» dela eta beldur badira ere kilo kopuru antzekoa biltzeko itxaropena dute. Tolosako Kultur Etxean jarriko duten taulan ikusi ahal izango da egunegun zenbat kilo biltzen dituzten.

Jakiak ondorengo lekuetan bilduko dituzte: Tolosako Maxi Eroski, Eroski Center, BM eta Eko supermerkatuetan eta aurten lehen aldiz, Santa Maria kalean dagoen gutxitu psikikoen Txolarte elkartearen 13:00etatik 15:30era.

Villabonako BM, Todo Todo eta Eroskin ere bilduko dituzte. Honetaz gain, eskualdeko udaletxe eta eskola guztietan ere utzi ahal dira produktuak.

Berrikuntza: eskola materialaren biltzeta

Aurtengoan, gainera, eskolarako materiala ere bildu nahi dute eskuartearen duten egitasmo berria abiarazi ahal izateko, hau da, «lu-

rralde askatueta aurkitzen den Meheriz herrian eraikitzen ari diren eskola hornitu ahal izateko». Horregatik deialdi berezia egiten diete eskualdeko ikastetxei euren ekarpena egiteko. Koadernoak, arkatzak, boligrafoak, papera, margoak eta zorrozkaileak behar dituzte eskolan, besteren artean.

Era berean, kanpaina aurkeztearekin batera Tolosaldea Sahararekin elkarrekin orain bi astetik gose greban dagoen Aminatu Haidaz giza eskubideen aldeko ekintzaile sahararri euren elkartasuna eta babesa agertu zieten agerrialdian. Aminatu Haidaz orain bi aste iritsi zen Aaiungo aireportura, Mendebaldeko Saharan, eta bertan Marokoko segurtasun indarrek atxilotu, 24 orduz preso edukitua, eta ondoren Espainiara bueltan bidali zuten.

Marokok bere lurraldean sartzeko bete beharreko dokumentuan, herritartasun atalean, sahararra jartzeagatik bidali zuten Espainiara.

@ Iritziak, azken berriak... TO-

LOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK irakurleen iritzia eta proposamenak jaso nahi ditu eta horretarako bide desberdinak eskaintzen ditu webgunean; Zurea da hitza saila, eztabaidak, inkestak... Era berean, eskualdeko azken berriak ere jasotzen dira webgunean, eta baita hainbat bideo ere:

www.tolosaldekohitza.info

Plazatik Azkuera doan bidegorria itxi dute

Ibarra » Orain gutxi ere egin zituzten konponketak, baina berriz hondatu da eta ondorioz, egun batzuetan itxita egongo da.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak argitu duenez, San Bartolome eta Azkue auzoaren arteko oinezko bidegorria, Arantzazu kaletik igarotzen dena,

moztu egin zuten atzo. Izan ere, «bide honen azalera erabilzailentzat arriskutsuak izan daitezkeen kalteak daudela ikusi da», argitu dute.

Orain gutxi ere itxi zuten konponketak egiteko eta brea geruza berri bat ere zabaldu zuten bertan, baina dirudienek «brea hondoratzen hasi da eta horregatik erabaki dugu bidea egun batzuez mozte, gertaera honen arrazoiak ezagutu eta konpondu ahal izateko».

Lurra, ura eta argia, KxK eta Mantazpian, egitasmorik onenak

Ibarra » Udala hausnarketa prozesuan dago; Kiroldegia berritzeko lehiaketak hiru finalista ditu eta bakarra aukeratu behar dute orain.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Belabieta kiroldegia berritzeko ideien lehiaketa abiarazi zuen herriko Udalak orain hilabete batzuk. Euren asmoa kiroldegia berritzeko edota handitzeko aukera desberdinak aztertzea zen eta guztira 8 egitasmo jaso dituzte. Horietako hiru aukeratu dituzte orain gutxi, bakoitzak 1.500 euro jasoko dituztelarik; Lurra, ura eta argia, KxK eta Mantazpian proiektuak dira saritutaokoak.

Txelo Romeo alkateak argitu duenez, «gure lana orain lan hauek aztertu eta egokiena aukeratzea da. 2010ean egingo dugu hori eta ondoren, proiektua eskuartearen pixkat bat itxaron eta egitasmoa

burutuko dugu, 2012. urtean behar bada. Izan ere, oraintxe balioaitzeko eraikinarekin proiektua dugu eskuartearen eta inbertsio handi horrekin oraingoz nahikoa dugu. Etxeko lanak egiten ari gara, nolabaite». Horregatik Udalak 2010. urteko aurrekontuetan egitasmoa zuzendutako aurrekontu-saila aurrekusi nahi du.

Inguruko herriak

Romeo, era berean, Ibarrako Kiroldegiak inguruko herri txikiak desberdinak jaso ahal izatea nahi dutela nabarmendu du, horrela «barnealdeko herrien beharrei» ere erantzuteko.

Lurra, ura eta argia proiektua Susana Gonzalez, Xabier Irurzun eta Alberto Apariciorena da; KxK, berriz, Amaia Alkain, Irati Arzallus, Iñaki Miguel, Xuxuna Otxoteko, Idoia Zabaleta eta Oihane Oterminena; Mantazpian, aldiz, Jon Estepan Arregik zuzentzen duen Arkitalde enpresarena da.

Hasi dira jada Elkartasun Azokarako biltzeta egiten

ERREDAKZIOA

Hasi dira jada Berastegiko Muñagorri eskolako Ingurumen Batzordeak antolatutako Elkartasun Azokarako bigarren eskuko materiala biltzen. Bihar arte izango da lehen txanda eta bigarrena, aldiz, hilaren 9tik 11ra izango da, 16:30etik 18:30era. Materiala apartakaleku azpiko lokaletan ari dirabiltzen, azoka ere bertan izango delarik hilaren 12tik 18ra. Orduetgia

honakoa izango da: hilaren 12an, 17:00etatik 19:30era; hilaren 13an 11:30etik 13:30era; eta hilaren 14tik 18ra 16:30etik 18:30era. Azoka honen helburua soberan edo erabiltzen ez ditugun gauzei etekina atera eta erabiltzen berri bat ematea da. Bertan, arropa, jostailuak, liburuak, altzariak eta abar izango da. Erabili daitezkeen eta txukun dauden gauzak izatea eskatu dute antolatzaileek.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe: 638 944 604 (Gurutze) edo 695 708 271 (Belen).

SALGAI

■ **Garaje marra.** Alegian garaje marra salgai, San Juan kalean. 669 827 096.
■ **Txerriak.** Bi txerri mahairako salgai. 943 69 34 48.



Leitzako hautetsi independentistek eta EAK «indar armatuaren presentzia bertan behera geratzea» nahi dute. A. IMAZ

Igandeko gertaerak salatzen Udalak deituta manifestazioa egingo dute

Leitza » Martxa abenduaren 12an herriko plazatik irtengo da, 'Maxurrenea' herrintzat. Utzi pakean' lelopean.

ASIER IMAZ

Komunikabide ugari elkartu ziren herenegun udaletxean. Zinegotziek «bilkura azkarra» egin zuten bertan, Batzar Aretoan, Udalaren goizeko gertaeren inguruan.

Hautetsi independentistek eta Eusko Alkartasunak, Udalaren gehiengoak, mozio bateratu bat aurkeztu zuten. Aldeko bederatzi botorekin Udalak mozioa onartu zuen. Aurkako bi bozka egon ziren Aretoan, UPNren eta Nafarroako PPrez zinegotzienak, hain zuzen ere. Hauek, mozioaren hasierako

bi puntuekin ados agertu baziren ere, bere osotasunean bozkatu behar zenez, ez zekela botoa eman zuten azkenean.

Udalak onartutako mozioa

Lehenengo eta behin, «Maxurrenea inguruko auzokideei bereziki, eta herritar orori, elkartasuna eta laguntza» adierazi zuen Udalak.

Ondoren zera esan zuten: «Argitu dezatela, behingoz, aipatutako gau horretan benetan zer gertatu zuen; eta horrek eragin ditzala eragin beharreko ondorio guztiak».

Honaino alderdi guztiak ados agertu ziren. Hemenetik aurrera, UPN eta NPP aurka agertu ziren: «Aurrerantzean horrelako gertakariak ezinbestekoak ikusten dugularik indar armatuaren presentzia bertan behera geratzea».

Horregatik, ondorengo deialdia zabaldu zuen Leitza Udalak: «Azken gertakari hauek salatzen eta inolako indar okupatzaile ez dugula behar aldarrikatzeko manifestazio deialdia egiten du: herriko plazatik abiatuta, *Maxurrenea herrintzat, Utzi pakean* lelopean, abenduaren 12ko 13:00etarako. Herritar guzteei bertan parte har dezaten gonbidapena egiten zaie».

Zauritua auzipeturik

Iruñeko laugarren instrukzio epaitegiko epailea herenegun arratsaldean Nafarroako Ospitale-ra joan zen, eta Leitza ingandegozaldean zauritu zuen guardia zibilaria auzipetuta zegoela jakinarazi zion. Bi delitu egotzen dizkio epaileak: alde batetik, delituaren itxurak egitea eta, beste aldetik, desordena publikoa eragitea.

EA: «Rubalcabak barkamen publikoa zor dio Leitzaari»

Leitza Uusko Alkartasunaren Herri Batzardeak ere bere irakurketak plazaratu nahi izan du igandeko gertakariaren inguruan.

Gauzak horrela, lehenik honakoak esan zituen Espainiako Barne Sailari: «Leitza herriari barkamena eska diezaiola eskatzen dugu; igandean, kuartel eginda dagoen Maxurrenean, guardia zibiletatik egindako tiroketa baten ondoren, Ministraritzak berak sortu zuen nahasmen zeremoniatik, baita goiz osoan zehar ET Aren atentatu bat zelako gezurrezko bertsioa mantendu zuelako ere.

Hipotesi hori herrian bertan gurtiz baztertua bazegoen ere, nahaspila eta gezurra arduragabekiluzatuz, Leitza herria Estatuko prentsa guztiaren begi-puntuan jarri baitzuten».

E Aren Batzardearen ustez, «Alfredo Pérez Rubalcaba ministroak Leitza barkamen publikoa zor dio», alde batetik, «agentea goizaldean tiroketa hasi zenean sortu zuen arrisku-egoera dela eta», eta beste alde batetik, «Ministraritzak gertatutakoa argitzeko izan zuen arduragabekeria eta berandutzeagatik».

Azkenik, EAk berriro ere argi utzi du Maxurrenearen auzian euren jarrera zein den: «Herriaren erdigunean kokatuta dagoen Maxurrenea etxeak kuartela izateari utz diezaiola esan dugu, eta eraikuntza hau herriko auzokideen erabilera publikorako berreskuratzea. Hori baitzen eraikuntzaren jabearen nahia etxea utzi zenean, eta berak jarritako baldintza, hau da, erabilera kultural, errekreatibo eta dotazionala ematearena. Argi dago Nafarroako Gobernua nahi horiez duela ez betetzen ezta errespetatzen ere».

Gaur XVIII. Euskararen Eguna Areson

ERREDAKZIOA

Udalaren, Euskara Zerbitzuaren eta UEMaren laguntzarekin, Aresoko Guraso Elkarteak XVIII. Euskararen Eguna antolatu du. Ospakizuna 11:00etan hasiko da.

Eguraldiari begira

Haur jokoak herriko plazan edo Trinketean egingo dituzte gaur goizean, eguraldiaren arabera.

12:00etan pintxoak eta trikitixa emanaldia egongo dira. 13:00etan pilotako partidak eta 17:00etan Kiki eta Koko pailazoaren emanaldia. XVIII. Euskararen Eguna, 18:00etan hasiko den ekitaldiarekin amaituko dute Areson, taloak eta trikitixa doinuaren artean.

Bestalde, *Zineman, euskaraz ere bai!* kanpainaren barruan, *Perez*

Sagutxo 2 ikusteko aukera egongo da hilaren 8an, asteartean, 17:30ean. Emanaldia eskolako soinketa gelan izango da eta arraz, 16:30ean, Guraso Elkartearen eskutik merienda izango dute haurrek Pake-Toki Elkartearen.

«Gehien maite duguna!»

Areson bezala, Ikaztegiaren eta Asteasun ere ospatuko da gaur Euskararen Eguna. Baita hainbat ikastetxetan ere, horien artean adibidez Tolosako Samaniego, *Euskararen Eguna, gehien maite duguna!* lelopean hain zuzen ere.

Euskara Batzardeak antolatuta, goizez eta arratsaldez Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek ekitaldi ugari egingo dituzte. Gauean beriz Kantu Afaria ospatuko dute.



Baserrietan telebista satellite bidez

LEITZA » Telebistaren seinalea jasotzeko ohiko bidea abenduaren 10ean moztuko dute Leitza. Kalearen gertutasunean bizi direnek, kajatxo bat jartzea nahikoa izango dute, bide berrira egokitzeko eta telebista ikusten jarraitzeko. 39 baserri inguruk ordea, satellite bidez bakarrik jaso ahal izango dute telebistaren seinalea. Baina horretarako antena egoki bat behar dute. Nafarroako Gobernuaren programa bati esker, lehen 25 antenak atzo banatu zituen musutruk Leitza Udalak. Falta diren baserrien jabeekin ere jada harremanetan aurkitzen omen da Udala. A. IMAZ



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa**AGUSTIN ADURIZ** Komertzio teknikaria**Merkataritza**

«Tolosan, Tolosarekin eta tolosarrekin» egin nahi du lan bi merkatarik elkarrekin teknikeri berriak aurrerantzean.

NOELIA LATABURU

Tolosako Igarondo eta Alde Zaharra Dendak merkatarien elkarteek komertzio teknikari berria dute. Hain zuen, Agustín Aduriz (Donostia, 1980) hartu du ardura hori. «Tolosak urte osoan zehar duen mugimendu ikaragarriari probetxua ateratu behar» zaiola uste du berak eta horretarako egingo du lan, besteak beste.

Zein izango da zehazki zure lana?
Nire figura merkatariei euskarri bat emateko sortu da, hauek dituzte zalantzak, arazoak, argitzeko. Halaber, instituzioekin harremana nik eramango dut, Udalarekin, Eusko Jaurilaritzarekin, Dinamizazio lana ere egingo dut, zozketak, promozioak, antolatuz.

Jaso al duzu jada zalantzarik?

Bai, bizpahiru duda kontsultatu dizkirate. Esaterako, orain Eusko Jaurilaritzak Eguberrietarako kanpainarako diru laguntza emango du kontratazioak egiteko eta galdetu didate ea zer baldintza bete beharko dituzten bai langile berriek bai enpresek ere, diru laguntza hori eskatu ahal izateko. Beste zalantza bat izan da dendari batekin bere lokalean pertsona batekin arazoa izan zuela eta kanporatu egin zuela; jakin nahi zuen ea bere lokalean onarpen eskubidea finkatzeko aukera duen.

Alor juridikoko kontsultak izan dira gehienak.

Zuzenbide ekonomikoan lizentziatua naiz eta eskaini dezakedan jakintza ere bada hori. Ordezkatu, ezin dut inor ordezkatu epailetan batean zoro bilatuko nintzatekela. Baina zalantza juridikoak badituzte legeekin ohituta nago.

Zure buruari ezartzen dizkiozuen helburuak zeintzuk dira?

Jendeari gertutasun bat transmititu nahi diot, eta batez ere lana ondo egin. Suertatzen zaizkidan egoerei ondo erantzun. Orainaldian lan egin behar da, etorkizuneari pentsatuz. Tolosarentzat hoberena dena egin nahi dut.

Zer ezagurri ditu Tolosako merkataritzak?

Batez ere alde onak ikusten dizkiet. Batetik, tratua oso pertsonala da. Bestalde, beti ikasi dudan zer bait Tolosan betetzen da, hau da, denda baten arima erakuslehoak eta dendariak osatzen dutela. Tolosaren erakuslehoak oso zainduta daude eta artatzen zaituen pertsona oso gertuko da. Gainera Tolosa oso herri polita da. Beste gauza ona da Tolosak inguruan herri asko dauzkala; honek aukera ematen du bertako herritarrek hona etor-

«Tolosak merkataritza aukera zabala du, eta hori landu behar da»



N. LATABURU

tzea erosketak egitea. Arriskua xarma galtzea da eta herri horietako autoa hartu eta Donostiara joatea erosketak egitea.

Eta hau nola ekidin daiteke?

Herria erakargarria egin behar duzu, jendea bertara etortzea aukera dezan. Tolosak badu merkataritza eskaintza zabala eta hori landu behar da.

Merkatalgune irekiaren kontzeptua erabili izan da Tolosarentzat. Bai, merkatalguneek dituzten abantailak lortu nahi dira; hau da, garbitasuna, segurtasuna, gertutasuna dendatik dendara, argitsuak, aparkaleku ugari,...

Azken hau bereziki Tolosako eta Tolosara datorren jendearen kexa hedatua izaten da.

Bai, horren berri izan dut. Esan diezazuket orain gutxi San Esteban aparkatu nuela larunbat batean eta lekua bazegoela bertan. Jendeak hori urrutiko dagoela dio baina bi minututan zaude zentroan eta gainera doakoa da. Agian ni donostiarriz kanpo distantzia luzeagotara ohituta nagoelako izango da baina aukerak badaudela iruditzen zait. Aparkalekuen gain, guztion artean zer bait pentsatu beharko da; arazoa bada tolosarentzat, irtenbidea ematen saiatu beharko gara.

Beste kexetako bat obrena da.

Dendariak euren aldetik oso asimilatuta dute obra horien beharra eta prozesu horretatik igaro behar dutela. Badakite hobekuntza ekarriko duela. Tolosako jendea oso tolosarra da, herrikoa da eta herriarentzat egiten du lan. Niri ere horrela pentsatzea gustatzen zait, Tolosan lan egiten dut, baina Tolosarekin, Tolosarentzat eta tolosarrekin egin nahi dut lan; gertutasun hori, elkartasun hori, laguntza hori, funtsezkoa da.

Krisiaren inguruko kezkarik helduraz al dizute elkarteetatik?

Bai eta ez. Nabaririk dute krisia ziurrenik baina oraingo ez didate bereziki horren inguruan ezer esan. Ez dauzkate datuak zenbat denda itxi edo diren edo ez. Komentatu didaten datu bat da Alde Zaharreko lokal batzuk alokatu gabe daudela... Baina bestela ez da inor gerturatu niregana denda itxi nahi duela-edo esanez. Horrelako kasuren bat emango balitz, edota denda bat ireki nahi duela, laguntza bideratzeko ere banago, eman beharreko pausoak emateko. Analfisiak egiteko, berriz, Tolosaldea Garatzena jo beharko dute.

Tolosalde Garatzenekin elkarlan izango duzue, orduan.

Bai, baita Udalarekin ere. Hemen Kristina Larrañagarekin egin behar dut batez ere lan, garapen ekonomikorako teknikaria da bera. Bilerak egingo ditugu maiz eta sor daitezkeen egoerak aztertuko ditugu elkarrekin.

Irunen lan berdina egitetik heldu zara Tolosara. Zer ekarpen egingo dizu aurreko esperientziak?

Herri bakoitzak bere izaera du, baina noski baliagarri izango zait. Baditu komuneko gauzak. Esate baterako, Irun ere herri txikietak inguratuta dago. Honi lotuta, dinamizaziorako eta promoziorako hainbat ideia ekarri ditut. Ikusi beharko da ea hemen aplikagarriak diren. Irunekin bada desberdintasun bat Tolosan, hemen bi merkataritza talde daude eta ostalaritzako beste bat. Irunen, aldiz, marka bakarra duen elkarte bat dago, eta honetan merkatariek, zerbitzuak eta ostalaritza daude barneratuta. Tolosan sakabanatuago daude.

Tolosan ere indar metaketa lortzen saiatuko zara?

Guztion batuketa indar gehiago ekartzen du eta lan politago eta indartsuago lor daiteke horrela lan eginez. Tolosarentzat marka bat bilatzea ere bada nire funtzioetako bat; espero dut bi merkatarik elkar-

teak batzea marka horretan, baita ostalaritza elkarteak elkartu ere, esate baterako, kanpainak eta promozioak elkarrekin bultzatzea.

Tolosan, zein sektorek du indar handiagoa?

Ni hemen nago bi merkatarik elkarrekin elkarlanean aritzeko. Orain, zehazki zein sektore den potenteago ez dakit. Badakit ere ostalaritzak jende asko mugitzen duela, baina jakina da Gipuzkoa osoan Tolosan denda oso potenteak daudela, eta kanpotik ere jendea erosketak egitera etortzen dela. Tolosa mugimendu handiko herria da: To.Pic-ek ere garrantzi handia izango du, Abesbatzen Lehiaketa

Orainaldian lan egin behar da, etorkizuneari pentsatuz. Tolosarentzat onena dena egin nahi dut

Tolosarentzat marka bat bilatzea ere nire funtzioa bada; guztion batuketak indar gehiago ekarriko du

dago, Inaunteriak, sanjoanak, azokak, Tolosak duen mugimendu handia kontuan hartuta ez dugu nahikoa aprobetxatzen gure dendak sustatzeko.

Orain artean merkatarik elkarteek antolatutako promozioak bide egokirik al doaz?

Larunbatearako antolatu duten egitarau hori, esaterako, oso egokia iruditzen zait. Entzun dut larunbat arratsaldeetan Tolosa hutsa geratzen dela. Umeak erakarriz gurasoak ere erakartzen dituzu. Umea ikuskizunetan dagoen bitartean gurasoek erosketak egin ditzakete, amua da.

Dinamizazio ekintzak egiten direnean, ondoren aztertzen da emaitza positiboak izan al dituen?

Horretarako nago ni ere. Kontrol bateraman behar da antolatzen diren ekitaldiak arrakastatsua diren ikusteko. Jendeari ere galdetu behar zaio, gustatzen al zaion ala ez, inkesta bidez-edo.


Eta instituzioetatik nahikoa laguntza jasotzen al da?

Jaso jasotzen da. Oraindik ez dakit zehatz-mehatz zenbat, ez ditut datuak eskuan. Bai Udaletik bai Eusko Jaurilaritzatik jasotzen dela badakit. Elkarteetako kideek eurek ere diru kopuru bat jartzen dute aldiro. Diru horrekin eta diru laguntzekin antolatzen dira dinamizazio planak. Postura moldatzen ari naiz oraindik eta gauza hauek denak aztertu behar ditut.

Zer moduzko harrera izan duzu?

Izugarrizkoa izaten ari da. Ezin dut hitz erdirik ere txarra esan. Ez dakizu zenbat laguntzen duen harrera honek eta jendearen gertutasunak lanean hasteko. Jendeak kallean agurtu eta guzti egiten nau, pentsa. Elkarteetako lehendakariekin ere harremana oso ona izan da. Oso-oso kontentua nago.

bukatu ditugu lanak



saltzeko
erosteko
alokatzeko
bilatzeko
oparitzeko
...

motzean esanda:

iragarkilaburrak.com
euskarazko iragarki laburren ataria



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aizondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Pello Odriozola presoaren aldeko elkarretaratzea Plaza Zaharrean 19:30ean.

Titirijai

■ **Tolosa.** 18:00etan Gorosabel auditorioan Quebec-eko Theatre de deux mains taldearen *Juanito y el pobre diablo* saioa eta 20:30ean Topic-en Portugalgo Shakespeare Women Company taldearen *La tempestad en un vaso de agua* obra.

Hitzaldia

■ **Tolosa.** Juan Jose Ibarretxe *Konpromiso politikoa: aukera bat, behar bat, betebeharrak* hitzaldia emango du Kasinon 19:30ean.

Zinema

■ **Tolosa.** *Rojo oriental* Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zineforumean, jatorrizko bertsoian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 52. 112.

» TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Zahar berri. **09:00.** Muka-Muka.
09:30. Tolosaldean Gaur. **10:00.** Gipuzkoakultura. **10:30.** On ein! **11:00.** Mendialdean bizi. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Artegitza. **12:30.** Wazemank. **13:15.** Klipak.
13:30. Tolosaldean Gaur. **14:00.** Gipuzkoakultura. **14:30.** On ein! **15:00.** Mendialdean bizi eta Tolosaldean Gaur. **15:30.** Artegitza.
16:30. Wazemank. **17:15.** Klipak. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Kafe t'ardi. **18:30.** EH lau haizetara. **19:00.** Golb tb. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Ikusten.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

■ **Maria Ansa Peña (Anoeta).** Muxu handi bat zure 4. urtebetetzean, gurasoak eta ahizpa Lideren partetik.

Euskaraz lan egiten dugu. Euskaraz bideratzen ditugu gure harrerekin, bai barnean, bai bezeroei begira. Eta euskararen aldeko apustuari eusten diogu, euskara ardatz harturik Gipuzkoan sustatzen ari diren zenbait egitasmo estrategikotan auzo-lankide jardunez buru-belarri, hala nolaz:

- Mintzola Fundazioan, bertako patroli.
- Soziolinguistika Klusterrean, bazkide.
- Gaindegia behategiaren babesle.
- Ahotsak.com ahoko ondarearen biketan laguntzaile.
- Euskarazko zerbitzuaren kalitatea sustatuz, Gipuzkoako Foru Aldundi eta hainbat udaleko hitzarmen-kide.

Eta gizarte eta kulturazko beste hainbat ekimen ere babestuz. Euskara gure nortasunaren muin beltzeroko delako. Elkartzeko gaituen hizkuntza.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net